

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

**Zuiako udalerrian kirolari gazteei eta desgaitasuna duten kirolariei zuzendutako 2025eko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren osoko bilkuraren 2025eko martxoaren 20ko erabakiaren laburpena**

BDNS(Identif.): 823616.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/823616>)

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Arabako federazio-lizentzia edo egoitza Zuian duen eta dagokion erregistroan inskribatuta dagoen kirol-klub edo -erakunde bat duten kirolari ez-profesionalak, Zuian urtebetez etenik gabe errolatuta daudenak eta 24 urte bete ez dituztenak (desgaitasunen bat duten kirolarien kasuan, mugarik gabe), bai eta Arabako Foru Aldundiak 2025erako promesatzat kalifikatutakoak ere.

#### **Bigarrena. Xedea**

Kirol federatuak Zuiako 24 urtetik beherako kirolarien eta adin-mugarik gabeko edozein desgaitasun duten eta lehiaketa ofizialetan, nazionaletan edo nazioartekoetan nabarmendu diren Zuiako kirolarien artean duen kostu ekonomikoa ordaintzen laguntzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Udalaren Osoko Bilkurak 2025eko martxoaren 20an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Partidaren diru-zuzkidura 5.000,00 eurokoa da.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

2025eko abenduaren azken egun balioduna baino lehen.

#### **Seigarrena. Beste datu batzuk**

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak [www.zuia.eus](http://www.zuia.eus) orrian (izapideak/dirulaguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2025eko martxoaren 28a

*Alkate-presidentea*  
**UNAI GUTIERREZ URKIZA**